Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que manifiesta que si bien en este asunto ha sido crítico con la FNMC, entiende que el foro de debate debe darse dentro de la FNMC, no los grupos a parte y no comprende que haya representantes de Ayuntamientos como Baztan y Sakana dentro de la FNMC y no vayan.

Por último, el concejal Sr. Ernaga muestra su malestar respecto a una reunión sobre micología que sabe que se avisó a todo el mundo y él ni se enteró.

Finalmente y respecto a la comida de navidad, aunque piensa que debería desaparecer y de hecho él no va a ir, considera que si se hace, cada año debería ser dentro del Valle, pero en sitios diferentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 13,30 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2014ko abenduaren 19an, 11:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Miren Orreaga Urtasun Alegre, Álvaro Villanueva Azcarate, Gabriel María Ernaga Esnoz eta María Roncesvalles Martínez Sagardia, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Miguel Echamendi Hernandezek etortzerik ez duela jakinarazi du.

### **1.-2014ko URRIAREN 22an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2014ko urriaren 22an egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

Ernaga jk. esan du 8. puntuan, Bizkarreta eta Lintzoaingo zolaketa proiektuei dagokionez, berak esan zuela hau: *“Iruditzen zaiola badagoela lanak egiteko egutegi bat: 1. Lintzoain, Kontseilaria bitan egon baita. 2. Erroko lanen bigarren fasea, eta 3. Bizkarretako bigarren fasea, lehenengoa 2014an inauguratu baiizen.”*

### **2.- ALKATEAREN EBAZPENAK 2014KO URRIAREN 18TIK 2014KO ABENDUAREN 12A ARTE**

Alkateak, Garralda jk., 2014ko urriaren 18tik abenduaren 12a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziak jakinaren gainean gelditu dira.

Martinez ak hitza hartu du eta Erroibar Guraso Elkarteak aurkeztu duen jantokiko gastuei buruz emandako 167 ebazpenari dagokionez, galdetu du Udalak ordaindu beharreko ehunekoaren arazoa konpondu zen, eta alkateak, Garralda jk., erantzun dio ez dela konpondu Nafarroako Gobernuak diru gehiago ematen duelako baizik eta haur gehiago dagoenez errentagarriagoa baita.

Ernaga jk. hitza hartu du eta eskatu du haur parkeak egiteko emandako diru-laguntzari buruzko azalpena, eta esan du berak esan zuela frontoia edo jolas-tokia ez dagoen herrietan beharrezkoagoa dela laguntzak ematea eta eskatu zuela kontzeju guztiei antzeko laguntza ematea. Eta Ardaitz eta Loizuko herrietan, adibidez, nahiko utziak daudenez, frontoi bat egiteko aukera aztertzea. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta azaldu du, alde batetik, Erro, Aurizberri eta Bizkarretako haur parkeak diruz lagundu dituztela ez dutelako herri horietako bizilagunek bakarrik erabiliko baizik eta ibarreko gainontzeko herrietakoak ere, herri horietara inguruko herrietako bizilagunak joaten baitira eta ezin baitzaie kontzeju guztiei mota horretako inbertsioak egiteko laguntza berdina eman, kontuan hartu behar baita biztanle kopurua, eta gainontzeko herri bakoitzari 5.000 euroko laguntza emango zaiola inbertsioak egiteko, beti ere ongi justifikatu beharko dute zertan gastatu duten. Hortaz, uste du ez dagoela bazterketarik eta herri guztietan gauzak egiten direla eta herri guztiekin elkarlanean aritzen garela.

### **3.- 2015eko ZERGA TASEN ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., 2015eko zerga tasak onartzea proposatu du eta joan den urtekoekin alderatuta aldaketarik ez dagoela esan du. Hona hemen:

- 1.-Ehuneko 0,28ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 2.-Ehuneko 0,40ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,1 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du gutxienez bere horretan utzi behar dela, eta joan den urtean esan bezala, uste duela hiri- eta landa-lurreko tasak jaitsi beharko litzatekeela, Udalak hori egin ahal baitu.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta azaldu du duela hamabi urte Udalak zerga tasak arautuko zituela, modu orekatuan, bertakoen egoerari egokitzuz, eta horri esker Udala ekonomikoki ongi dagoela, zerbitzuak eta laguntzak emateko moduan baitago, bizilagun guztien onurarako eta, aldi berean, Nafarroako Gobernutik laguntza gehiago jasoz. Ordutik ez da aldaketarik egin eta ekonomikoki Udala ongi dagoenez ez dira zergak aldatu, eta uste du Ernagak proposatu duena, hots, zergak jaitea, akats bat dela, eta Ernaga jk. esan dio horregatik hain zuzen ere, Udala ekonomikoki ongi dagoenez, bi gauzak egin dezakeela, laguntzak eman eta zergak jaitsi. Hortaz, bere aldetik zerga tasak onetsiko lituzke hiri- eta landa-lurreko tasak jaisten badira.

Gaia eztabaidatu ondoren, erabaki da aldeko sei botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Martinez, Echamendi eta Garralda) eta aurkako boto batez (Ernaga) 2015eko zerga tasa hauek onartzea:

- 1.-Ehuneko 0,28ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 2.-Ehuneko 0,40ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,1 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

#### **4.- ESKOLA GARRAIOAREN INFORMAZIOA**

Garralda jk. hitza hartu du eta azaldu, eskola garraioaren laguntzei dagokienez, zenbait eskaeren datuak argi ez daudenez, eman baino lehen eskatzaileei dokumentazio zehatzagoa eskatu behar zaiela. Modu berean eta aurreko bilkuran laguntza hauek arautzen dituen ordenantzaren aldaketaren hasierako onespenerari dagokionez, jakinarazi du batzordea deituko duela behin betiko onetsi aurretik.

Martinez ak. hitza hartu du eta esan du ez dagoela ados aurten ikasketen eta eskola garraioaren laguntzen deialdia banatu den modurekin, buzoietan utzi ordez Kontzejuetan utzi baita, gero bizilagunei banatzeko, eta kasu askotan ez dela egin, jende askok ez baitu horren berri izan.

Alkateak, Garralda jk. dio Kontzejuei eskutitza igorri zaiela erreklamazioa eginez eta laguntza eman dezatela eskatuz.

#### **5.- MENDIAUNDIKO HARROBIAREN PROIEKTUARI BURUZ MARTINEZ AK. ESKATUTAKO INFORMAZIOA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du Martinez ak. egindako eskaerari dagokionez, esan ahal duen bakarra dela badakiela proiektuak urtea bukatu baino lehen aurkeztu behar direla. Horietan egingo duten guztia aipatuko dela eta jendaurrean egonen direla. Eta egin diren zundaketen gaineko informazioa eta emaitzei dagokienez, Udalak ez du horren berri, ez baitago bere eskumenean, baizik eta meategien zerbitzuan.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du gai honekin duela 5 urte hasi zirela eta badirudiela motel doala, enpresariak aurkeztu zuten proiektuarentzako berrehun mila metro lur behar ziren, eta hartara, dagoen UGPS handitzeko proiektua onetsi zen. Eta proiektua prest dagoenean, badirudi ez dela beharrezkoa, egin behar denaren zati bat industrialdetik kanpo egingo baita. Bere ustez, horren garrantzizkoa baldin bada hainbeste denbora galtzeak sinesgarritasun falta dakar, eta aipatzen diren 100 lanpostuak sortuko direla ere ez dela sinesgarria dio.

Garralda jk. hitza hartu du eta esan du berarentzako lanpostuak sortuko duen proiektu oro interesgarria dela. UGPSri dagokionez, Udalak handitzea onartu zuen harrobiaz aparte, eta orain ezin bada handitu hasieran onetsi zen moduan, Iberdrolak argindarra emateko behar den azpiegituraren kostua bideragarria ez delako dela, eta beste irtenbideak bilatu behar izan dira, adibidez industrialdea gutxiago handitzea. Hala ere, bere taldeak proiektuaren alde egingo du, uste baitute ibarrarentzako eta eskualde osorako ona dela, garapenean lagunduko baitu. Izan ere, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia duten jarduerak gero eta gutxiago dira eta jendea bertan mantenduko duten beste jarduera batzuk bilatu behar dira. Modu berean, jakinarazi du 2014-2020 Landa Garapeneko Planean aurkeztuko dutela. Ernaga jk. dio nahiz eta alkateak dioena ulertzen duen berarentzako errealitatek urrun dagoela, enpresari batek ezin baitu bere proiektuak aurrera eramateko lau urte zain egon, eta kokapenarena argindarraren menpe egotea ez duela inork sinesten.

Juanarena jk. hitza hartu du eta esan du proiektua iritsi arte itxaron beharko dela eta zer eskatzen duten ikusi, proiektuetan dirua gastatu baita.

Martinez ak. hitza hartu du eta esan du meatzaritzako proiektu bat KBE eta natura-sareko eremuan egitea legez kanpoko dela. Azkenik, Garralda jk., alkateak, azaldu du berak beti ibarrarentzako onuragarria izan daitekeen proiektu oro, edozein dela hura aurkeztzen duena, aurrera ateratzen saiatu dela.

## **6.- 5º.- AURREKONTUKO ALDAKETAREN ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du ondoren aipatzen diren aurrekontuko aldaketak onetsi behar direla, Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 212 eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera. Horietako lehenengoa baso jardueri dagokie, 2014ko aurrekontuan aurreikusita ez zegoen zenbatekoa delako eta bigarrena eskola garraioari, ez baitago diru nahikorik. Eta azkenik, hirugarren aldaketa, Amma Ibañetari dagokiona, ez da beharrezkoa egitea akzioen erosketa 2015ean egingo baita.

### **1. AURREKONTUKO ALDAKETA**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 581 69004	BASO JARDUERAK	24.102,13

<b>ALDAKETAK OSOTARA</b>		<b>24.102,13</b>
--------------------------	--	------------------

### **FINANTZIAZIO ITURRIAK:**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	DIRUZ GORD GASTU OROKORRETARAKO	24.102,13

<b>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</b>	<b>24.102,13</b>
--------------------------------------	------------------

<b>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</b>	<b>24.102,13</b>
--	------------------

## 2. AURREKONTUKO ALDAKETA

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 420 48002	IKASKETENTZAKO LAGUNTZAK	12.200,00

<b>ALDAKETAK OSOTARA</b>	<b>12.200,00</b>
--------------------------	------------------

### FINANTZIAZIO ITURRIAK:

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	DIRUZ GORD GASTU OROKORRETARAKO	12.200,00

<b>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</b>	<b>12.200,00</b>
--------------------------------------	------------------

<b>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</b>	<b>12.200,00</b>
--	------------------

Erabaki da:

1. lehenengo aurrekontuko aldaketa aho batez onestea eta bigarrena aldeko bost botoz eta abstentzio batez, Ernaga j., onetsi da.

2º.- Aho batez erabaki da aipatutako aurrekontu aldaketa onartzea eta 6/1990 Foru Legearen 276 artikulua dioenaren arabera jendaurrean jarriko da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan.

## 7.- TOKIKO BESTEN EGUTEGI PROPOSAMENA

Aho batez erabaki da Erroibarko Eguna uztailaren hirugarren igandean ospatzea, hots, uztailaren 19an.

## 8.- HIRIGINTZAKO TXOSTENAK

### 8.1) JOSE ANGEL CASTELLOT GARCIAK MEZKIRITZEN SUSTATU DUEN EGITURAZKO ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Garralda jk., alkateak, hitza hartu du eta esan du Erroibarko Udal Planaren egiturazko aldaketaren dagokionez, Mezkitzen UE-30 Exekuzio Unitatean, 13 poligonoko 53 lurzatian sustatua, Jose Angel Castellotek 2013ko abenduaren 18an (21. NAO 2014/01/31) Mezkitzen UE-20 Exekuzio Unitatean sustatutako Erroibarko Udal Planaren egiturazko aldaketaren hasierako onespeneren ondoren, eta jendaurreko epean alegaziorik egon ez denez eta proiektua idatzi duen arkitektoak, Jose Ignacio Mena Mur, 2014ko irailean emandako erantzuna ikusita, eta udal arkitektoak emandako txostenaren arabera, udalbatzak hala erabakitzen badu, hasiera batean onartu behar da.

Txostenak honakoa dio:



*Proiektua egin duenak, Mena Mur jk., aurkeztu duen dokumentuak Sustapen Departamentuko Hirigintza Atalak egindako txosten teknikoak eskatutako gauza bakoitzari erantzuten dio:*

*- Aldaketa behin betiko onesten denean jabetzari eta birzatiketari dagokiona argitzen du.*

*- Exekuzio Unitatea mugatzen du, Unitatera ibilgailuz iristeko bidea eta Planak leku publiko librea izendatutako lurrekin bat egiten duen tokia Unitatean sartzen du.*

*- Etxe bakoitzeko gehieneko azalera eraikia 300m<sup>2</sup> izango da.*

*- Hirigintzako zehaztapan egiturazkoak eta xehatuak, zehazki finkatzen dira.*

*UE-20 Unitate berriak 3.920,35 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka; etxebizitzetara daraman bidea eta dagoen bidea lotzen dituen eremu publikoa unitatean sartu da.*

*UE-20 Unitate berriak 3.920,35 m<sup>2</sup> ditu, horietatik batzuk aurreko UE-20 Unitatearen barne daude eta beste batzuk Mezkirizko 13 poligonoko 53 lursailaren barnean.*

*UE-20 Unitateko hiri lurzoru finkatu gabea (727,13 m<sup>2</sup>) lurzoru urbanizaezina izatera pasatuko da, 53. lurzatiaren gainontzeko lurzorua bezala (nekazaritzako produktibitate ertaineko lurzorua, Udal Planaren arabera).*

*Aldaketa eskatu izanaren arrazoia da obrak egin zirenean sarbidea eta gainontzekoa aldatu behar izan zela lur gutxiago mugitu eta hobeki gelditzeko.*

*Aurkeztutako dokumentu berriaren aurrean, honako kontsiderazioak egin dira:*

*A.- Proposamenak bat egiten du Udal Planean okupazio eta eraikigarritasunari buruzko baldintzen betekizunarekin.*

*Proposatu den aldaketak honakoa dakar:*

*- 1.575,05 m<sup>2</sup> lurzoru urbanizaezina aldatzea eta lurzoru urbano finkatu gabe izatera pasatuz.*

*- 727,13 m<sup>2</sup> hiri lurzoru finkatu gabe lurzoru urbanizaezina izatera pasatuz.*

*- UE-20 Exekuzio Unitatea berriro mugatzea 3.920,35 m<sup>2</sup> emanaz.*

*Antolaketa berriak bi lursail eraikigarri proposatzen du, bakoitza 1.533,70 m<sup>2</sup>koa, bidea, aparkalekua eta berdegunea egiteko 852,95 m<sup>2</sup> utziz. Etxebizitza bakoitzeko gehieneko azalera 300 m<sup>2</sup>koa da eta gehieneko eraikigarritasuna 300 m<sup>2</sup>koa.*

*Udal Planak Exekuzio Unitate gehienetarako gehieneko okupazioa 0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> ezarri du. Unitate honetarako proposatu den okupazioaren arabera lursail bakoitzean 0,1956 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> ezarri dira. Gehieneko eraikigarritasunari dagokionez Unitate osorako 600 m<sup>2</sup> proposatu dira, horrek 0,1956 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> ematen du, Udal Planean Exekuzio Unitateetarako proposatu diren 0,60 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> baino gutxiago.*

*B.- Dokumentu berrian txosten orokorrean aipatutakoaz gain, aldaketaren testua sartzen da eta Udalak hasiera batean onartzea eskatzen da.*

*Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:*

*1.- Jose Angel Castellot Garciak UE-20 Exekuzio Unitatean sustatu duen Erroibarko Udal Planaren aldaketa hasiera batean ONARTZEA, Jose Ignacio Mena Murrek 2014ko irailean prestatutako dokumentuak diotenaren arabera, eta testu bateginaren dokumentua behar bezala bideratua Sustapen Departamentura bidaltzea behin betiko onets dezaten.*

2.- Txostena Sustapen Departamentura IGORTZEA, behin betiko onesteko, eta hari dagozkion hirigintza txostenak eranstea.

## **8.2) BERNARDO URTASUNEK AURIZBERRIKO 9 POLIGONOKO 64 LURZATIAN SUSTATU DUEN EGITURAZKO ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du aldaketaren helburua dela sustatzaileak lursail horretan hiru etxebizitza egin ahal izateko hirigintza aldetik modu egokian egitea.

Proposamena da lurzorua urbano finkatu gabe modura sailkatzea, 64 lursaila hartzen duen Exekuzio Unitatea (UE23) gehi lursailaren parean dagoen bidea hartuz.

Unitatearen azalera osoa 2.876,20 m<sup>2</sup>koa da, azalera eraikigarria 2.361,77 m<sup>2</sup>koa eta 514,43 m<sup>2</sup> biderako. Azalera eraikigarria hiru lursailetan banatzen da: bat 900 m<sup>2</sup>koa eta beste biak 516,38 m<sup>2</sup> bana, lehenengo lursaila eta beste bien artean berdegune publikoko 240 m<sup>2</sup> utziz.

Uraren hornidura, hondakin-uren kanporaketa eta sare elektrikoaren hornidura oraingo lursailaren parean dagoen bidetik pasatzen dira.

Dokumentuak Exekuzio Unitatea egitea proposatzen du eta antolaketa xehatua garatzen du, egin ahal den zatiketa aipatzen du, zati bat lurzoru publiko bezala utziz eta lursail bakoitzeko gehieneko lerrokadura mugatik 3 metrora eta bideko mugatik 5 metrora ezarriz.

Dokumentuak honako zehaztapenak aipatzen ditu:

Egiturazkoak:

- Lurzoru mota: urbanoa.
- Lurzoru kategoria: finkatu gabea.
- Gehieneko aprobetxamendua: 3 etxebizitza PB+1+E, teilatuaren hegalaraino izango duten gehieneko altuera 7,50 metrokoa izango da, gehieneko okupazioa 0,25 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> eta gehieneko eraikigarritasuna 0,6 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> (Udal Planeko beste Unitate batzuen antzera).

Xehatuak:

- Lerrokaduren definizioa.
- Gune publiko libreen eta derrigorrezkoa urbanizazioaren tokiko sistemen definizioa.
- Zolaren erabilerak.
- Exekuzio Unitatearen mugaketa eta jarduteko sistemaren finkapena: konpentsazioa edo borondatezko birzatiketa.

Etxebizitzetarako buruz:

- Babes publikoko etxebizitzak egitetik salbuestea proposatu da, kontuan hartuz herriko biztanle kopurua eta mota horretako etxebizitzaren eskaerarik ez dagoela.

Gune dotaziodunak eta zerbitzudunak:

- Berdegune eta gune librerako 240 m<sup>2</sup> uztea eta beste 189 m<sup>2</sup> espaloi eta aparkalekurako, guztira 429 m<sup>2</sup>.
- Aparkatzeko 6 plaza erreserbatuko dira gune publikoan.

Udalaren hirigintza alorreko teknikariak, Ana Larequi ak., egin duen txostena kontuan hartuz, 2014ko uztailaren 18an egindako txostenari ekarpen berriak egin zaizkio:

A) Proposamen berrian eransten den lurzorua lurzoru urbano finkatu gabekoa sailkatzen da, Exekuzio Unitate baten mugak kontuan hartuz. Proposamena egokiagoa

da, kontuan hartuz proposatu diren zesioek lursailaren azaleraren %10 gainditzen dutela eta egokiena dirudiela proposamena garatzeko jarduteko sistema ezartzea.

B) Lerrokaduren planoak ikusita eta etxebizitzaren aurrealdean karririkako lerrokadura lortzeko, proposatu den gehieneko lerrokadura derrigorrezkoa izan daiteke.

C) Berdegunerako eta gune librerako zati bat uzteak bat egiten du Aurizberri zeharkatzen duen karrika nagusiarekiko paraleloa den beste karrika bat egiteko aukerarekin, herria modu zentzudunean handitzeko.

Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79., 70. eta 71. artikuluetan ezarritakoarekin bat eginez, aho batez erabaki da azaldutako kontsiderazioak onartzea:

1.- ONARTZEA hasiera batean Bernardo Urtasunek Aurizberriko 9 poligonoko 64 lurzatian sustatu duen Erroibarko Udalaren Planaren egiturazko zehaztapenen aldaketa puntuala, ARQ arkitektoek egin duten dokumentuaren arabera, 2014ko azarokoa, eta jendaurrean paratzea hilabeteko epean.

2.- Etxebizitza Departamentuari eskatzea babes publikoko erregimeneko etxebizitzak egiteko lurra gordetzetik salbuestea (6/2009 Foru Legeak eta 10/2010 Foru Legeak aldatu zuten Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 53. artikuluan arabera)

3.- Bideratutako txostena eta oraingo txostena zein 2014ko uztailaren 18koa, Sustapen Departamentura igortzea, txosten orokorrak egin dezaten.

## **9.- 2015EAN BASO LANAK EGITEKO PROPOSAMENA ETA ALKATEARI ESKUMENA EMATEA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du aurreikusita zegoela baso lanak egiteko laguntzen deialdia argitaratzea, oraindik ez dela argitaratu eta zirriborroa egina dagoela, eta hari alegazioak egin zaizkiola, gai zerrendako bigarren puntuan aipatu den moduan. Proiektuak aurkezteko zirriborroan aurreikusi den epea motza da, 20 eguneko, eta, hortaz, uste du egin nahi denaren proiektua prestatzen hasi behar dela eta Ekilaneke Fermin Izkorekin jarri da harremanetan, zer den beharrezkoagoa eta zer sartu behar den aztertzeko, eta hauek izango lirateke lerro nagusiak: Sorogainen sasi-garbiketak egitea, azkeneko bost/sei urtetan egin denari erreposoa emanez, Belaskoango pistako goiko zatien konponketa, Ardaitzen Hogaleko pista konpontzea Ardaiztik Aintzioara doan zatian, eta Loizutik Larraingoara doan pistako ezpondak konpontzea. Orosari dagokionez ez da ezer egin, oso luzea da, Orosatik Uritzera doa, gutxi gora behera 13 km ditu eta horietatik 10 Udalarenak dira eta mantentze zein konpontze lanak gure esku daude.

Urtasun ak dio hazi diren landaketa eta landareei erreposoa eman behar litzaiekeela, zola goratzen ari baita.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du ez zaiola egokia iruditzen udalarenak ez diren jaurerrien dermian dirua sartzeko eta proposatu du dokumentua prestatzea Udalarari 50 urteetan lur horiek erabili ahalko dituela bermatuz. Hortaz gain, uste du premiazkoa dela Sorogaineko errepedean zerbait egitea, batez ere Sorabilen, oso gaizki baitago.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan dio ezin dela 50 urteko konpromisoa lortu, legeak ez duelako uzten, 15 urte baizik, eta jaurerrietan dirua sartzeko bizilagunen onurarako dela.

Hortaz, gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da alkateak, Garralda jk., egindako proposamenak onartzea eta Ekilaneke prestatuko duen proiektuan sartzea eta alkateari ahalmena ematea hemendik gutxira aterako den deialdian aurkezteko.

#### **10.- 2014-2010 LGP**

Ondoren Garralda jk., jakinarazi du, 2015-2010 LGPri alegazioak aurkezteko 194 ebazpena eman zuela eta oso epe motza eman zutela horiek aurkezteko NAO n argitaratu ondoren. Alegazio horiek Udal guztien kezkak biltzeaz gain Udal honek dituen beste kezka batzuk jasotzen dituzte. Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du nahiz eta ados egon alegazio horiekin iruditzen zaiola kontraesana dagoela onetsi nahi den harrobi-proiektuarekin. Bere ustez lanpostuak sortuz gero, ez da beharrezkoa harrobiaren proiektua. Juanarena jk. hitza hartu du eta esan du industriaren alde egin behar dela, etorkizunarentzako garrantzizkoa baita eta hori gabe eskualdea desagertuko baita. Ernaga jk. dio horretan ados dagoela baina ikusi behar dela zer nolako industria sustatu nahi den.

Aho batez erabaki da 194 alkate-ebazpena berrestea.

#### **11.- “NAFARROA BERE AUTOGOBERNUAREN ALDEKO MANIFESTUA” MOZIOA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta foru manifestuari dagokionez Osoko Bilkuran onartzeko aurkeztu duela dio, uste baitu forua ez dela pribilegioa baizik eta defendatu beharreko eskubidea.

Ernaga jk. hitza hartu du eta galdetu du Nafarroako Gobernuko eskaera den eta alkateak, Garralda jk., erantzun dio ezetz, ideologia ezberdineko pertsona askok horren alde egin duela.

Ondoren bozketa egin da eta aho batez erabaki da mozio hau onartzea eta Martinez jk. esandako helbide elektronikora igortzea: “navarraporsuautogobierno@gmail.es”.

*Erroibarko Udalak, baldintza eta ideologia anixko herritarrez osatua, gure arbasoengatik jasotako autogobernuak jasaten dituen erasoak gaitzetsi nahi ditugu. Zoritxarrez haiek egin izan zuten bezala, gure burujabetza irmo defendatzera behartuta gaude.*

*Lehenik eta behin, Espainiako gobernuak garatutako legez-kontrako eraso zentralistatik defenditzeko. Autonomia elkarte guztiak behartzen dituen Oinarrizko Legeriaren gehiegikeria edo autonomia eskaseko Auzitegi Konstituzionalean hamaika helegiteren bidez autogobernu ahalmena erosotuz, badirudi gure autogobernuaren desagerpena besterik ez dutela helburu.*

*Horretaz gain, komunikabide eta zenbait indar politikoren eskutik, bidegabeki eta bere interesen alde, Forua pribilegiotzat jo eta nafarren elkartasun eza salatzen dutenen aurrean. Haiei gogorarazi nahi diegu Espainiako Konstituzioak eta bere lehen xedapen gehigarriak aitortutako autogobernua elkartasun handiko sistema dela, urtero argitaratutako datuek erakusten duten bezala.*

*Azkenik, Nafarroako Erresuma zaharraren oinordekotza jaso dugun nafarroek gure baldintzagabeko lege ahalmena erosotu nahi dutenen aurrean defendituko dugu, nafarroei dagokigulako bakarrik gure etorkizunaren erabakia.*

*Horregatik IRMO ESKATZEN DUGU:*

- *Espainiako gobernuak, gure parlamentuan islatutako ahalmen legegilearen aurka aurkeztutako helegite guztien atzera-egitea.*
- *Nafarroaren berezko kompetentzia eta ahalmenak zuzenki baldintzatzen dituen Oinarrizko Legeria guztiaren aplikaezintasuna aitortzea.*
- *Espainiako Erresuma eta Nafarroaren arteko kompetentzia-gatazkak antolatuko dituen organo independente eta parekide baten sorrera.*
- *Estatuarekin Ekonomia-hitzarmenaren berritzapena adostuko duen eta Nafarroako legebiltzarreko indar guztiak bilduko dituen foru-parlamentuko batzordea sortzea, legebiltzarra delako nafarron borondatea jasotzen duen erakundea.*

*Gora nafar askatasuna!*

*Gora Nafarroa eta bere foruak!*

## **12.- OGASUNEKO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO MINISTERITZAKO FACE PLATAFORMA ERABILTZEKO ERABAKIAREN PROPOSAMENA**

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du, besteak beste, fakturak modu elektronikoa jasotzeko derrigortasunari erantzuteko, beharrezkoa dela Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak osatu duen Face Plataformari atxikitzea. Hartara, UPEFak igorri duen erabaki eredia Udaltzarak onetsi du aho batez:

*Enrique Garralda Erro jk., Erroibarko Udalaren izenean, osoko bilkuraren bidez, honakoa dio:*

*Abenduaren 27ko 25/2013 Foru Legeak, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitateko erregistroa sortzeko, 2015eko urtarrilaren 15etik aitzina faktura elektronikoa luzatzeko betebeharra ezarri zuen eta arautegi berean gainerako baldintza eta salbuespenak aipatzen dira.*

*Aldaketa egin eta, ezarritako baldintzei jarraikiz, fakturak modu elektronikoa jasotzeko konpromisoari aurre egin ahal izateko, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak Estatuko Administrazio Orokorreko Faktura Elektronikoen Sarreraren Puntu Orokorren Plataforma (FACE) sortu du, gainerako Administrazio Publikoen eskura jarritz.*

*Hortaz, ERABAKI DA:*

*ENTITATEAK eta haren Erakunde Autonomoek FACE Plataforma erabiliko dute erakunde honetako faktura elektronikoen sarrera puntu orokor gisa. Plataforma horretako Erabilera Baldintzei jarraikiz.*

*Behean aipatutako pertsonen ahalmena ematea beharrezko informazioa kudeatzeko, FACE plataformaren barnean, Erroibarko Udalaren izenean.*

<i>I</i>	<i>Abizenak:</i>	<i>IFZ</i>	<i>Kargua</i>
<i>Idazkariaren izena</i>	<i>Idazkariaren abizenak</i>	<i>Idazkariaren IFZ</i>	<i>Idazkaria:</i>

<i>Kontu-hartzailearen izena</i>	<i>Kontu-hartzailearen izena</i>	<i>Kontu-hartzailearen izena</i>	<i>Kontu-hartzailea</i>
----------------------------------	----------------------------------	----------------------------------	-------------------------

### **13.- BAKE-EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOA IZENDATZEKO DEIALDIA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du bake-epailea eta haren ordezkoa izendatu zirenetik lau urte pasatu direla eta Botere Judizialeko Lege Organikoaren eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995eko Arautegiaren arabera, deialdi publikoa egin behar dela Bake Epailea eta haren ordezkoa izendatzeko.

Hortaz, aho batez erabaki da Bake Epailea eta haren ordezkoa izendatzeko deialdia egitea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarritz, interesaturik egon daitekeen orok eskaera udal idazkaritzan egin dezan.

### **14.- BESTERIK**

- Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du Bizkarretan egin diren lanei dagokienez, Eunate Ingenieros enpresak egin duen txostena azaldu du, eta argi gelditu da zergatik igo den lanen kostua eta zer den Bizkarretako Kontzejuak jarri behar duena, Kontzejuak proiektuan aurreikusita ez zeuden gauza batzuk egitea eskatu baitu eta horiek ordainduko ditu. Zenbatekoa 18.306,31 euro da, eta hori ordaintzeko Bizkarretako Kontzejuko buruarekin adostu da alde batetik Lasturren salduko den egur lotearen ehunekoarekin eta bestetik 2015eko aurrekontuan aurreikusiko den zenbatekoarekin.

- Ondoren jakinarazi du Ardaitz eta Loizun urarekin duten arazoa datorrela herri txikiak direnez ongi kloratzea zaila baita, ura pilatzen baita. Hori konpontzeko Tabar enpresari txosten bat egitea eskatu zaio eta konponbideak duen kostua Ardaitzen 2.654,00 euro eta Loizun 315,00 eurokoa da. Inbertsio horiek 2015eko urtealdiko aurrekontuaren kargura egingo dira.

- Uretari dagokionez, Osasun txostenak faboragarriak ez direnez, premiazkoa da konponbidea bilatzea eta Tabar eta Eunate Ingenieros enpresekin mintzatu ondoren, konponbiderik hoberena eta merkeena ura Mezkiriztik eramatea dela ikusi da. Gaur egun dauden etxebizitzak eta abere-ustiakuntzen eta etorkizunean egon daitezkeen ikerketa egin da eta ikusi da Mezkirizko ur-biltegitik Uretara ura eramateko nahikoa dagoela. Modu berean, argindarraren hornidurako aurrekontua ere eskatu da. Proiektu bat egingo da Uretara ura zein argi hornidura eramateko eta LGPea aurkeztuko da.

- Eta azkenik jakinarazi du Unai Lopez Gastarena kontratatu dela Nafarroako Gobernuko NINIS izeneko deialdiaren bidez.

### **GALDE-ESKAERAK.**

- Ernaga jk. dio NUKFak egin zuen azkeneko Batzarrera joan zela eta ez zegoela Udaletik inor gehiago, eta alkateak, Garralda jk., esan dio berak ezin izan zuela joan. Horrekin lotuta Ernaga jk. jakinarazi du tokiko mapa dela eta toki entitate batzuk alegazioak aurkeztu zituztela elkarrekin, besteak beste mapa prestatzeko prozesua irekiagoa eta parte-hartzaileagoa izateko eskaera eta alegazio hori ez zela onartu. Eta badirudiela NUKFaren eta UPNren artean desadostasunak daudela. Dena den jakinarazi

du talde horri esker, toki entitate askok osatua, eta egin dituzten kritika eta ekarpenei esker, estatuko legea PSN eta UPN taldeek egindako proposamena baino hobeagoa da. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du nahiz eta gai honi dagokionez NUKFarekin kritikoa izan den, uste duela eztabaida NUKFaren barnean eman behar dela, eta ez berriz hortik kanpo, eta ez duela ulertzen zergatik Baztan edo Sakanako ordezkariak NUKFaren barne egonda ere ez diren bileretara joan.

Eta Ernaga jk. esan du mikologiari buruzko bilera bat egin dela eta badakiela guztiei jakinarazi zitzaiela, bera izan ezik.

Eta azkenik, Eguberriko bazkariari dagokionez uste du ez dela egin behar eta berak ez duela joan behar, eta uste duela, egitekotan, urtero toki diferentean egin beharko litzatekeela, beti ere ibarrean.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, bilkurari bukaera eman zaio 13:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.